

JOSE ANTONIO ARANA MARTIXARI GORAZARREA

Bilbo, 2008-VI-27

Eusko Ikaskuntzaren Musika Sailak Jose Antonio Arana Martixa omendu zuen Bilbon, ekainaren 27an. Bilboko Korral Elkartearekin batera antolatutako ekitaldi honetan, hauek hartu zuten parte: Cecilio Gerrikabeitia, Bilboko Korral Elkartearen presidentea; Jon Kortazar, Eusko Ikaskuntzaren Bizkaiko buruordeak; Itziar Larrinaga, Eusko Ikaskuntzaren Musika Saileko buruak; Antton Zubikarai «Musikene», Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegiaren ordezkariak; eta Jon Bagües, «Eresbil» Musikaren Euskal Atxiboaren ordezkariak.

Guztiek Gernikako euskaltzain osoak «euskal kulturari egindako ekarpena publikoki aitortu» nahi izan zuten. Gainera, Eusko Ikaskuntzaren Musiker: *Cuadernos de Música* aldizkariak Arana Martixa omentzen du bere 15. zenbakian eta horren aurkezpena ere egin zen ekitaldian. Aldizkariaren ale bat oparitu zioten Arana Martixari, baita plaka bat ere. Amaitzeko, *Bertzitu Txistuzale Elkartea* kontzertu bat eskaini zuen.

